

# EUSKAL BABEL

Deskribapena: Antzara batzuk hegan egiten azaltzen dira, izokinak ibaian gora hartzen atzaparretatik ihesi eta ñuak migrazioan. Ondoren, arraza desberdineko pertsonak ikusten dira alde batetik bestera eta euskal etorkinen argazkiak ere.

Kike (off ahotsa): Hegaztiak, negu epelagoen bila, milaka kilometro egiten dituzte. Izokinak ugaltzeko helburuarekin bidaia arriskutsuetan murgiltzen dira eta ñuak dira, ugaztunen artean, migrazio handiena egiten dutenak. Gizakiok ere, leku batetik bestera mugitzen gara, lanagatik, maitasunagatik edo dena delakoagatik, ia beti bizi hobearen bila.

Euskaldunok, badakigu zer den etorkin izatea, etxetik alde egitea noizbait bueltako bidea egingo dugun jakin gabe.

Kike: Munduko leku askotatik ere etorri dira gurera. Bakoitza bere hizkuntza eta ohiturekin, horrek suposatzen duen aberastasunarekin. Orain dela gutxi arte ez zen bat ere ohikoa Euskal Herrian, euskara, gaztelania edo frantsesa ez zen beste hizkuntzarik entzutea. Gaur egun ordea, nahikoa da kalera ateratzea errealitatea zenbat aldatu den antzemateko. Baina, zenbat hizkuntza hitz egiten ote dira, gaur egun, Euskal Herrian?

Deskribapena: Babel dorrearen imajinak azaltzen dira.

Kike (off ahotsa): Babel dorre batean bizi bagina bezala, gure hiri eta herrietan, bost kontinenteetako hizkuntzak entzun ditzakegu eta nahi izanez gero, baita hitz egin ere!